

Aretxagazeta

San Juan bezpera

*“Sorgiñek eta lapurrek erre,
artuek eta garixek erne”*



ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

San Pedro Txikiak txanda
eman San Pedroei /8

AISIALDIA

Ardo Dastatze ikastaro
arrakastatsua /9

LEINTZ GATZAGA

Toti Martínez de Lezea
eta Maite Aristegi
'sorginekin' /10

ASTEKO GAIA: SUKALDEKO OLIOA BATZEN/4 • KIROLAK: UDAKO KANPAINA/6

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTAINGOAK

Arnasate	943 79 14 39
----------	--------------

LARRIALDIK

SOS Delak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

GUARDIAKO FARMAZIA

ZAPATUA, 22
FRAILE, J. Herriko plaza, 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 23
FRAILE, J. Herriko plaza, 10. 943 79 85 83

OHARRAK

EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA SINFONIKOAREN KONTZERTURAKO SARRERAK

Herriko Akordeoi Orkestra 10. urteurrena ospatzen ari da. Ospakizunak uztailaren 20an, Euskal Herriko Gazte Orkestra Sinfonikoak egingo duen kontzertuarekin amaituko dira. Kontzertu horretarako sarrerak da-goeneko salgai daude, Taberna Berrin, Arlutzen eta Iosun.


UDAKO IKASTAROAK

Zainduz osasun eta *fitness* zentroak hiru ikastaro antolatu ditu uztailen: Mugimendu Konzientearen gainekoa, Emakumeendako Defentsa Pertsonalekoa eta *shiatsu*-koa, hain zuzen ere. Informazio gehiago, 943 71 27 92 telefonoan.

ORAINDELA 6 URTE ARETXABALETAN

Lege-hausteak 1994. urteko aurrekontuen gestioan

1996. urtean Herri Kontuen Euskal Epaitegiak lege-hausteak aurkitu zituen 94ko udal jardueran. Epaitegiak udaleko aurrekontuen gestioan eta administrazio kontratazioan lege-hauste batzuk aurkitu zituen. Arrazoi horregatik udalari auditoria egin zitzaion 1996. urtean.




Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Motxarda"

Neskatila bizi eta bihurria.
-Nungua da neskatilla motxarda belendriñ hau?




GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

'Biblioporrak 2002'

Aurten ere *Biblioporrak* irakurketa gida atera berri dugu Udal Liburutegian. Bertan, oportretan irakurtzeko moduko liburu sorta bat gomendatzen dugu, adin-ka sailkatua. Gida hau Deba-goieneko Liburutegiek elkarlanean ateratzen dugu. Gida agertzen diren liburuak 2001 eta 2002an argitaratuak dira denak eta saiatu gara genero desberdinetako liburuak sartzen: poesia, entseguak, bidaia liburuak, biografikak, eta batez ere, nobelak. Gida hau herriko ikastetxeetan banatuko da, ikasleek oportretan Udal Liburutegian zein irakurria badagoela ikus dezaten. Ikastetxeetan jaso ez duen edonork Liburutegian bertan jasotzeko aukera izango du.



BIBLIOPORRAK 2002

ARETXABALETAKO UDAL LIBURUTEGIA

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK



ESKORRIATZA
Carla Perea
Maiatzean. Berandu bada ere, zorionak eta muxu bat etxeko guztien partetik.



ESKORRIATZA
Itxaso Urrutia
16an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Esti Aguilera
14an. Zorionak eta muxu handi bat Rubenen partetik.



ESKORRIATZA
Iker Fernandez
18an, urte bat. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORRIATZA
Ahinara Zubizarreta
19an, 22 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORRIATZA
Sebas Herruzo
19an. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.



ESKORRIATZA
Leixuri Herruzo
20ean. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.



ESKORRIATZA
Uxue Beloki
21ean. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Jose Fuensanta
22an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Mireia Cabezas
22an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Jon Unanue
23an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Mara Hernández
25ean, 2 urte. Zorionak etxeko guztien, eta batez ere. Ikerren partetik.



ARETXABALETA
Leire Cabezas
27an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko en eta lagun partetik.



ESKORRIATZA
Joxean Diaz de Gereñu
27an. Zorionak etxeko guztien partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ARETXAGAZETAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**
Durana, 11.

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 5
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

Matikua jatetxea

Azata auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

ANDRA MARI
Aholkularitza


- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26


ARETREN BENTZIA EZ PADA / Ze egitten dozu sukaldien ibilitteko olixuekin? Zer pentsetan jatzu batzie?



PILI LEANIZBARRUTIA
Langillie



AITOR ALBERDI
Langillie



ELENA JOAQUÍN
Langillie



JOSE HERNÁNDEZ
Langillie



PURIFICACIÓN MORENO
Langillie



JOSE MARI CARRILLO
Langillie

Ontzi baten jasoten dot, baiñe gero ez dot jakitten ze egin eta azkenien fregaderatik bota biher. Oso ondo pentsetan jat batzie, egixe esan Udalak zeozter egin daixen eskaketako nitzen.

Normalien fregaderatik behera botaten dogu, baiñe batzuetan gorde eta errezikletan be erueten dogu. Oso ondo pentsetan jat jasotie ekologiak eskertuko dusku eta guk be bai.


Olixue ondiokan garbixe badau barriro ibiltten dot, baiñe zikindutekue eta ondarrak fregaderatik botaten dittut. Ordue zan Aretxabaletan be batzeko zerbitzue jarteko...

Egixe esan biher badot fregaderatik behera botaten dot. Oso ondo pentsetan jat batzie, ahal dan dana errezikletie komeni da-eta. Hala eta be lanien gabitzenenda-ko ez dauko ordutegi ona.

Erreziklau. Eskoriatzarra naz eta aspaldittik jasoten duskue han. Olixo ontzi bati-ten gorde eta gero azokara erueten dot jaso daixien. Danondako hobeto, gaiñe-rra, fregaderiendako...

Bota, fregaderatik behera bota. Askok ez dogu ibiltten, gehixena plantxan egitten ahaleginketan gara-eta. Baiñe hemendik aurrera gorde egingo dogu gero errezikletan erueteko.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK JENDEA FALTA DA LANERAKO Arazoa aspalditik dator eta herriko elkarte guztiek daukate; jendea falta da borondatez lan egiteko. UDAk, esaterako, aste bete barru ohiko batzar orokorra egingo du. Zuzendaritza batzordea berri-urako gurako luke, orain daudenek 12 urte daramatzate eta nekatuta daude, baina zaila izango da laguntzeko prest dagoen inor azaltzen ez bada. /M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN / 4	ASTEAN BEHIN / 5	KIROLAK / 6
Sukaldeko olio- batzen	San Juan bezpera	Udako kanpaina
Sukaldean erabilitako olio- batzen hasiko dira asteleheneratik aurrera gure herrian.	San Juan bezpera berezia da euskal- dun guztiontzat eta Aretxabaletan ere suarekin ospatuko dugu.	Udako kanpaina antolatu du kirol etxeak uztaile- rakoz gaste eta helduek gura beste kirol egiteko.

ASTEKO DATUA

31

MUTIL IBILIKO DIRA DOMEKAN TANTAIA ALTXATZEN


Tantaia altxatzen asko ibiliko dira seguru asko, baina datorren urtean Santa Ageda mutil izango direnak 33 dira. Horietatik 31 izango dira domekan tantaia plazan zuzen jarriko dutenak.

BESTE EKESANA

“Gorriak eta urdinak behar dira pastoralean eta gurean oso gorri gutxi agertzen da: auzapeza, suprefeta eta jendarmeak. Jendarmeak maiz agertzen dira oraingo pastoraletan. Ikastola berria egiteko lurrak eskatuz manifestazioa egiten du Ortaizeko guraso taldeak eta orduan agertzen dira jendarmeak. Hori da pastoral honetako gudu bakarra eta ez da txikia, gurasoak erabat kolpatuak geratu baitziren. Bukaera tragikoa izan ohi dute pastoral gehienek, protagonistak pertsonaia historikoak izaki, haien bizitzak heriotzarekin bukatzen direlako. Nik ere nire protagonistaren heriotzarekin bukatu nuen. Ikastola eraiki samarrik zutenean teilatutik erori eta hil egin zen Dominika izeneko emazte hori.

AITOR SARASUA
Gara/02-06-03

HERRITARREN BERBAK / Xabier Sarasua



*Erosketa
tiketa*

Descartesek “pentsatzen dut, beraz banaiz” zioen, gizon-emakumeok dugun izatearen kontzientzia azaltzeko. Gaur egun ordea, nork uka dezake “kontsumitzen dut, beraz banaiz” baieztapena?

Gure bizimodua ez ote dago bada, kontsumoan oinarritua? Jatekoa, jantziak, telebista saioak, bideo zintak, diskoak, liburuak, autoak... Galdera da, (zoriontsu) bizi-tzeko kontsumitzen dugu ala (oparotasunez) kontsumitzen bizi gara? Nork sumatzen zuen, adibidez, duela 5 urte segapoto edo sakelako telefonoaren beharrik? Nork sortu digu bada behar berri hori?

Geure izaera bera ere kontsumitzen dugunaren arabera-koa dela sinestarazi digute: janzkera, makillajea, lurrin mota, auto modeloa, gustuko musika mota... Eta bizi-kalitatea kontsumo mailaren arabera-koa dela. Kontsumitza da kontua, azken finean; zenbat eta gehiago, hainbat eta hobe.

Horrela eskatzen du gure bizimoduaren antolakuntzak (sistema ekonomikoak, alegia), gure kontsumo mailaren igoeraren arabera-koa baita ekonomia hazkundera (denon helburu komun bakarra). Baina, nora goaz?

Badakigu ezinezkoa dela denok geure kontsumo maila izatea. Beraz, noren bizkarretik ari gara gu kontsumitzen? Askok esango dute munduko ekonomia eta komertzioaren egitura dela erruduna eta egin berri den gosearen aurkako goi bileran ez dutela benetako konpromisorik hartu.

Ados, baina ez ote litzateke ezer aldatuko, gutako bakoitzak beharrezkoak ez ditugun gauzen kontsumoa gutxitzeko joera hartuko bagenu? Eta zer gertatuko litzateke kontsumitzen duguna nondik datorren, nork eta nola egin den, zein merkatal baldintzatan ekartzen den... galdetzen hasiko bagina eta duintasunez egin dagoenaren aldeko aukera egiten?

Gurea ere bada hautua... eta erantzukizuna.

“Galdera da, (zoriontsu) bizi-tzeko kontsumitzen dugu ala (oparotasunez) kontsumitzen bizi gara?”



M. J. Aretxaga

Zein ote da?

Zein ote da Las Vegasetik idatzi duen laguna? Urtarrilean loteria tokatu zitzaiona ote da? Edo adarra jo guran dabilenen bat? Las Vegas aldean ibili baldin bada, loteria tokatu zitzaiona izan edo ez, gustura ibiliko zen hango kasinoetan aberatsen antzera. Gozatu dezala ahalik eta gehien, baina burua galdu barik.

Bestelako sariak ere egon dira gurean. Domekan **Asier Atxak** Hernaniko txirrindulari lasterketako sari nagusia irabazi zuen. Gogor dabil gure txirrindularia. Ez etsi eta jarraitu horrela. Datorren domekan, berriz, **San Juan bezpera** ospatuko dugu. Urteko egunik luzeena eta gaurik motzena heltzeko gutxi gelditzen da. Han eta hemen suak piztuko dira egun horretan. Herriko plazakoa izango da handienetakoa. Traste zaharrak eta belar txarrak erre eta "San Juan, San Juan" abestia kantatuko dugu, dakigunok behintzat. Emozioz betetako momentua izango da, suaren garrak eta jendearen ahotsa besterik ez da entzungo... Hurrengo goizean, berriz, Durana eta Otalora kaleetako etxe batzuetako atarteak iraz, eta gurutze eta lorez beteta agertuko zaizkigu. Batzuek lehengo usadioei gogor eusten diete, eskerrak! Zuek jarraitu horrela.

BIRZIKLAPENA / Herritarrek harraskatik botatzeko ohitura daukate, baina oso kaltegarria da ingurumenarendako

Sukaldeko olioak batzen hasiko dira astelehenetik aurrera Aretxabaletan

MIRARI ALTUBE

Aretxabaletan, Debagoieneko gainerako herrietan moduan, sukaldeko olioak batzeko egitasmoa jarriko dute abian. Astelehenean egingo dute lehenengo olio bilketa, eta aurrerantzean, hileko azken astelehenetan jasoko dute olioak, Belorrietako azokan.

Eskoriatza izan zen olioak batzen hasi zen Debagoieneko lehenengo herria. Poliki-poliki, gainerako herriek ere bat egin dute egitasmo horrekin, eta orain, Aretxabaletan jarriko dute abian.

OLIOA HARRASKATIK, OHITURA TXARRA Herritarrok, orain arte, olio harraskatik botatzeko ohitura geneukan. Ohitura txarra, ordea, ur zikinen hodiak hondatzeaz gain, ingurumenarendako oso kaltegarria da-eta: arratoiendako janaria da, erreketako fauna akabatzen du eta ur-araztegiatan arazoak sortzen ditu.

Olioak beirazko, plastikozko, metalezko edo bik erako ontzi baten gordetzea komeni da. Birziklatzeko jaso ostean, biltzaileak gura izanez gero, ontzia garbitu eta bueltan eroateko emango dio herritarri; bestela, biltzaileak berak jasoko du, hori ere birziklatzeko.

Jatetxeek eta tabernekin bilketa berezia egitea eska dezakete Ecogras enpresara deituta (943 47 23 35). Aretxabaleako Udalak


Noiz eta nora eramán daiteke olioak?

► Bilketa egun eta leku hauetan egingo da:

- **EGUNA:** Hilaren azken astelehenean
- **ORDUTEGIA:** 10:00 - 13:00
- **LEKUA:** Belorrietako azokan
- **ARGIBIDE GEHIAGO:** Aretxabaleako Udala, 943 711 861

Nola gorde behar da olioak?

► Beirazko, plastikozko, metalezko edo tetrabrik erako edozein ontzitan. Nahi izanez gero, gure biltzaileak, olio jaso ondoren ontzia garbituko dizu, berriro ere erabil ahal izan dezazun. Bestela, biltzaileak berak gordeko du ondoren birziklatzeko.



Oharra

Ez da jasoko autoetako olio zaharrak

► Jatetxeek eta tabernekin bilketa berezia egitea eska dezakete telefono honetara deituta: **943 47 23 35** (Ecogras)



Eta gainera, zure laguntzagatik oparitzo bat ere jasoko duzu!



Udalak olio bilketaren gainerako argibideak ematen dituen orritxoak banatu du herriko etxebizitza guztietan.

argi utzi gura du ez dutela automobiletako olio zaharrak jasoko.

Jasotako olioarekin biodiesela izeneko automobilendako erregaia egingo dute. Erregai hori biodegradagarria da, eta isuriz gero, gasolinak baino kalte txikiagoa eragiten du.

kiagoa eragiten du.

BILKETA BELORRIETAKO AZOKAN

Olio bilketa hileko azken astelehenetan egingo dute Aretxabaletan, 10:00etatik 13:00etara bitartean, Belorrietako azokan. Bertan

Ecogras enpresako autoa egongo da. Gainera, jasotako laguntza eskertzeko, oparitzoak jasoko dituzte herritarrek: olioarekin egindako xaboiak, hain justu ere.

Argibide gehiago gura duenak udaletxera dei egin dezake.

LABUR

Parrokiak antolatzen duen bidaiak aurten Italiara izango da eta autobusa ia beteta dago

Aretxabaleako Parrokia orain bost urte hasi zen antolatzen uda partean bidaiak atzerrira. Lehenengoak izandako erantzuna ikusita geroztik urtero egin izan dute. Aurten Italiara joango dira abuztuaren 1etik 13ra bitartean, eta Italiako herri eta hiririk poli-

tenak ikusteko aukera izango dute, Florentzia, Venezia... Autobusean ibiliko dira hara eta hona, eta oraindik pare bat lagunentzako tokia dagoela esan behar da. Bidaiak 1.450 euro izango da eta autobusa eta hotela sartu dira prezio horretan.

Ane Goikoetxeak idazle gaztea saria

Ane Goikoetxea aretxabalearrak, Galtzagorri elkarteak, Euskaldunon Egunkariak eta Diputazioak antolatutako idazle gazteen lehiaketa irabazi du. *Buruhaustea eta abiadura* ipuina aurkeztu zuen, eta uztailaren Egunkarian kaleratuko dute.

Udako ordutegiarekin hasi dira udaletxean

Aretxabaleako udaletxeko langileak ere beste hainbat tokietakoak bezala, udako ordutegiarekin hasi dira lanean. Hemendik eta iraila bitartean 8:00etatik 14:00etara bitartean egingo dute lan udaletxeko langileek.

IZOTZ

Taberna

Mitarte, 16
Tel.: 79 73 65
ARETXABALETA

IBARRA

estankoa



PRENTSA ETA
IKASMATERIALA
Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA

ZARAIA

TABERNA

Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzuan
Tel.: 943 79 88 95

MANTEKA ANAIK

BENGOA

URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana, 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta



ARTXIBOA

Santa Ageda mutilek euren indarra eta trebezia erakutsi beharko dute domekan tantaia igotzeko orduan.

JAIK/ Urtero legez, San Juan Sua eta tantaia igotzea izango dira domeka gauean

Usadio zaharrak berrituta San Juan gau bezperan

MIRARI ALTUBE

Urtero moduan, aurten ere San Juan bezpera ospatuko dugu aretxabaletarrok domekan. Udaleko Kultura Sailak umeak protagonista izango dituen egitaraua antolatu du arratsalderako. Eta gauean, San Juan Suaren erritua eta tantaia igotzea bizi izango ditugu.

Euskal Herriko herri askotan moduan, gurean ere San Juan bezpera ospatuko dugu domekan. Esanahi berezia dauka udaren etorrera adierazten duen gau horrek euskaldunondako, eta zeinu eta errituz beteta datorkigu aurten ere.

UDAKO SOLSTIZIOA

Gaur, ekainak 21, sartu gara udan. Udako solstizioarekin urteko gau motzena eta egun luzeena datoz, eta San Juan bezperan egiten den festa eta usadioekin horixe ospatu gura da.

Sua da San Juan jaietako ezaguri nagusia. Suak berrikuntza adierazten du, zaharrak erre eta berriak erne. Baserrietako uztak eta etxe abereak izurriteetatik garbitu eta babesteko ahalmena ere badu. Urteko gau motzenez, gainera, sorginak agertzen ziren ustea zegoen gure aitajaun-aman-dreen artean, eta sorginkeriei aurre egiteko sua erabiltzen zuten. Horrelaxe dio baserrietan antzina abesten zuten koplak batek ere: *Sorgiñek eta lapurrek erre, artuek eta garixek erne.*

Herriko plazan egingo duten suaz gainera, baserri baten baino gehiagotan egingo dute sua aurten ere.

TANTAIA, LUZEA ETA ZUZENA

Suarekin batera tantaia da San Juan bezperako hurrengo protagonista. Datorren urtean Santa Ageda mutil izango direnek jasoko dute tantaia. Arratsalde partean, mutil koadrila elkartu eta aurrez begiz jotako zuhaitzaren bila joango dira. Lehen, erreka ertzean botatuko makala altxatzen zuten, baina zuhaitza luzea eta zuzena izatea nahiko da. Azken urteotan pinua jaso izan dute. Zuhaitz bila ilundu eta gero

joaten ziren lehen, ohiturak dienez ostutakoa izan behar duelako, baina gaur egun, arratsalde parterako kalean egoten da zuhaitza.

San Juan Sua itzaltzerakoan zuhaitzaren zuriketa lanak hasiko dituzte mutilek. Puntan aza eta Ikurrina jartzeko ohitura ere badago. Behin zuhaitza gertu, mutilen indarra eta trebezia beharko dira tantaia plaza erdian zuzen-zuzen uzteko. Batzuek azpitik helduta, eta beste batzuek soketatik tira eginez, zuloan sartu arte. Urtero moduan, esperientziadunak ere inguruan ibiliko dira aurtengo mutilei lagundu guran. Jaso ostean, eta bukatzeko, ipurdia gogortuko diote tantaia, jausi ez dadin.

AURTENGO EGITARAUA

Udaleko Kultura Sailak, Jai batzordearekin batera, hainbat ekintza antolatu ditu domeka arratsalde eta gau parterako. 17:00etan, Kukubiltxo taldeak *Lehoiek ez dakite biolina jotzen* antzezlan eskainiko du herriko plazan; 18:30ean, buruhandiak irtingo dira herriko txistulariekin batera; horren ondoren, Lora-mendi dantza taldearen eta Leizarra musika eskolaren emaldiak izango dira; 21:00etan, MN-EZTEN taldearekin dantzaldia; eta 22:20an, San Juan Sua egin aurretik, San Juanetako Zortziko dantzatuko du Lora-mendi DTK; San Juan suaren ondoren, datorren urteko Santa Ageda mutilek tantaia jasoko dute.

*Suak
berrikuntza
adierazten du,
zaharrak erre eta
berriak erne*

*Lehen makala
altxatzen zuten,
baina azken
urteotan pinua jaso
izan dute*

LABUR

Idoia Elexpuru margolariak eta Jose Ugarte tailagileak erakusketa jarriko dute Aramaion

Idoia Elexpuru margolariak eta Jose Ugarte tailagileak, biak aretxabaletarrok, erakusketa jarriko dute Aramaio Sastiña etxean. Idoiak hogeita hamarren bat olio eroango ditu -gehienak, Aramaio bertako paisaiak- eta Josek, berriz, azken urteotan egin dituen hamar bat taila lan erakutsiko ditu.

Erakusketa ekainaren 22tik 30era bitartean egongo da ikusgai, astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era bitartean, eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era. Erakusketak iraun bitartean Idoia Aramaio Sastiñan izango da ikusleek izan ditzaketen galdera eta zalantzak erantzuteko prest. Olio lan guztiak, gainera, salgai ditu.

Bost begirale eta etxeoandrea behar ditu Atzegik atzeratuen etxean lan egiteko

Atzegik, Gipuzkoako Atzeratuen Elkarteak, Durana 13an dagoen etxebizitza zabalduko du urri inguruan. Atzeratuen etxebizitza horretan lan egiteko bost begirale eta etxeoandrea behar ditu Atzegik. Begiraleei LHko 2. maila eskatuko diete eta euskaraz jakitea ere baloratuko dute. Etxeoandreak egun erdiz egin beharko du lan, euskaraz jakitea eskatuko diete eta eskarmentua izatea baloratuko dute. Interesatuok curriculum eta argazkia bidali behar dute Atzegik Donostian duen egoitzara: Atzegi, Okendo 6-behea 20080 Donostia. Eta informazio gehiago gura duenak Aretxabale-tako udaletxera jo dezala.

TXUTXUMUTXUA



Loteria irabazleak postala eskerrak emanaz

Joan den urtarrilaren 17an, 340 milioi pezeta tokatu zitzaizkion Iber loteria dendan zigilua emandako txartel bati. Ia bost hilabete pasatu dira ordutik hona, eta maiatzaren 22an, irabazlearen postala jaso zuten Iber dendan. Las Vegastik bidali du eskerrak eman eta oso gustura dabilela esateko. Postala gaztelaniaz idatzita dago eta ez du inork sinatu. Angel Urtzelai, Iber dendako nagusia, ikerketa lanetan ibili da, eta haren esanetan, herrikoa eta gaztea izan behar da irabazlea. /M.A.

IRIARTE

Umeen
denda
eta
lentzeria



Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETAKO

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETAKO
Tel: 943 79 01 28

UDAKO KANPAINA

Udako kanpaina jarri du abian kirol etxeak gaztetxo eta helduendako

Udaleko Kirol Zerbitzuek era guztietako eskaintzak egingo dituzte aurtengo udarako

MIRARI ALTUBE


Udaleko Kirol Zerbitzuek udako kanpaina jarri dute abian. Gaztetxoek eta helduek hainbat kirol egiteko aukera izango dute. Eskaintzen artean, ohikoak ez diren kirolak egongo dira, tenisa eta golfa tartean, eta gainerakoei ordutegia egokitu diete.

Udan ez dago aspertzeko aitzakiarik: zortzi urtetik gorako gazteek eta helduek kirol eskaintza zabala dute kirol etxean.

KIROL ESKAINTZA

Zein kiroletan parte hartu gura duten izena emateko orria dagoeneko banatu diete gaztetxoek eskolatan. Zortzi urtetik gorako guztiek har dezakete parte eta txanda bi izango dituzte aukeran: ekainaren 27tik uztailaren 10era eta uztailaren 11tik 24ra. Kirolak, berriz, ugari: tenisa, igeriketa, aerobika, eskalada, patinajea, esku pilota, golfa eta multikirola. Igeriketan lau urtetik gorako umeek ere parte har dezakete.

16 urtetik gorako nagusien kirol eskaintza uztailaren 1ean



Golfean jokatzeko aukera izango dute udako kanpainan izena ematen dutenek.

hasiko da eta 19an bukatu. Izena emateko epea, gainera, astelehenean, ekainaren 24an, bukatuko da. Hor ere kirol aukera handia egongo da, batzuk betikoak eta beste batzuk berriak: tenisa, igeriketa, golfa, badmintona, gim-

nasiarako ikastaroa, gimnasia, hirugarren adinekoendako gimnasia eta aerobika. Talde txikiak osatuko dituzte, eta ordutegi aukera zabala jarri dute Udaleko Kirol Zerbitzuek. Izena emateko, kirol etxera deitu: 943 71 26 28.

UDA

Aretxabaleta Kirol Elkartek urteko Batzar Orokorra egingo du ekainaren 28an

UDAK, Aretxabaleta Kirol Elkartek, ohiko Batzar Orokorra egingo du ekainaren 28an. Lau puntu izango dituzte eztabaidagai: 2001/2002 ekitaldiko kirol jarduera eta ekonomia gorabeherak, 2002/2003 ekitaldirako Zuzendaritza batzordearen izendapena, 2002/2003 ekitaldiaren aurkezpena, eta galderak eta eskariak. Zuzendaritza batzordeak, bestalde, laguntzeko prest dagoen edonon pozik hartuko duela adierazi gura du. Batzar Orokorra Murruxoko lokalean izango da, 19:30ean.

PILOTA

Gasteizko Aduzako Pilota Txapelketako finala jokatu dute Aritzek eta Andonik


Herriko pilotariak han eta hemen antolatutako pilota txapelketak jokatzeko ari dira. Aritz Kortabarria eta Andoni Altube gazteek osatutako bikotea, esaterako, bi txapelketa jokatzeko ari da. Bate-tik, Oñatiko Pilota Txapelketa hasi berri dute. Bestetik, Gasteizko Aduza auzoko Pilota Txapelketako finalera iritsi dira, Odei eta Sergio bikote aretxabaletarri irabazi ostean. Oraindik ez dakite finalean zeintzuk izango dituzten aurrez aurre, ezta noiz izango den ere, baina gertu daude datorrenari aurre egiteko.

TXIRRINDULARITZA

Asier Atxa txirrindulariak irabazi zuen Hernaniko San Juanetako Sari Nagusia

Olarra-Consultec taldeko Asier Atxa txirrindulari aretxabaletarri irabazi zuen Hernaniko San Juanetako Sari Nagusia joan den domekan. Lasterketa polita egin ostean, lau txirrindulari ibili ziren norgehiagoka helmugan, eta Asierrek metro batzuetako tartea atera zien harekin zihoazen beste hirurei. Duela hilabete inguru Gipuzkoako 23 urte aspikoen txapelkun izan ostean, bikain dabil Asier, Nafarroako Itzulian ere etapa bat irabazi zuen-eta.

OSASUN GIDA



ARETXABAleta

DENTISTAK:

■ IMANOL ARRAZOLA OTXOA

Mediku-dentista
Otalora, 18-1D. Tel: 943 79 93 55

■ ANGEL BENGUA SAN MIGUEL

Mediku estomatologoa
Durana, 14-1. Tel: 943 79 05 57

MASAJEAK:

■ FLOREN ELORTONDO

Masajeak eta osteopatia
Basabe industrialdea, Pab D z/g
Tel: 629 77 85 84 / 943 79 46 20

■ LASAI MASAJEAK

Mirian Manteca masajista
Osteopatia kraneala: estrukturala eta funtzionala, lotura muskularrak
Aurrez lekua eskatu: 943 77 04 34

■ ZAINDUZ OSASUN ETA FITNESS ZENTRUA

Kirol eta osasun zerbitzuak:
banakako fitness programak, masajeak...
Hilargi plaza, 6. Tel: 658 75 80 12

■ EGIN FISIOTERAPIA ZENTRUA

Errehabilitazioa, masaje terapeutikoa, akupuntura, osteopatia.
Belorrieta, 6-7. Tel: 943 79 95 64

PSIKOPEDAGOGOAK:

■ LEBER KABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA

Hezkuntza arazoetan diagnostikoa eta tratamendua
Basabe industrialdea, C3-3.
Tel: 943 79 56 98

PARAFARMAZIAK:

■ FARMA BIZI PARAFARMAZIA

Maitane Urrutia Yurrebaso farmazilaria
Loramendi, 8. Tel: 943 77 18 18

YOGA:

■ SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA

Yoga, bioenergetika eta psikoterapia
Lezama komertzial zentrua
eta Santa Kurtz, 24. Tel: 616 965 795

ESKORiatza

FARMAZIA:

■ BOTIKA LDA. M. D. AGUIRRE PAGALDAY

Homeopatia, dermofarmazia, formula magistralak
Eduardo Gorosarri plaza. Tel: 943 71 48 28

DENTISTAK:

■ ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

Hortz klinika
Eduardo Gorosarri, 3-1. Esk.
Tel: 943 71 47 36

ORTODONTZIAK:

■ AGUSTIN GOROSARRI BARBARIAS

Protesiko dentala: ortodontzia
Arana, 20-2.esk. Tel: 943 71 44 36

ERRETRATUZAHARRA

Uda heldu aurreko Futbol Txapelketa



Uda heldu baino lehenago, ekainaren lehenengo astean, futbol txapelketak hasten ziren Aretxabaletan. Lagun arteko partidak izaten ziren; hori bai, seriotasun handiarekin jokaturakoak. Horrelaxe gogoratzen ditu, behintzat, Jose Mari Arkauzek, argazki zahar horren jabeak. "1961. urtean ateratako argazkia da; guk 15 edo 16 urte izango genituen orduan. Urte hartan, finala jokatu genuen, baina uste dut ez genuela Kopa irabazi"

Zortzi bat taldek hartzen zuten parte Futbol Txapelketan. Argazkiko taldeak Schuss izena zeukan. Schuss orduko edari famatu bat zen, eta kamisetak edari horri propaganda egiteko atera zituztenez, taldeak izen bera hartu zuen.

Garai bateko Ibarra futbol zelaian jokatzeko zintuzten domeka goizetan partidak. Argazkia ere hantxe ateratakoa da, eta, ikus daitekeen moduan, orduko zelaia ez dauka oraingoan antzik. Jose Mariren esanetan, ez zen batere samurra zela hartan jokatzeko.

"Guk, orduan, oraingoan moduko zelaia izan bagenitu, Bartzelonari ere irabaziko genioke". Futbol partiduak ikustera, gainera, herritar ugari hurreratzen ziren.

Zutik, eskumatik hasita: Felix Maria Antxia, Jose Luis Uralde, Segundo Gutierrez, Garai, Jose Martin

Axpe, Errarte anaiak, Jose Angel Olazabal, atezaina (izenik ez jakin arren, erretratuaren jabearen esanetan, Arkonada bera atzean uzten ei zuen atezain hark), eta Juan Ramon Zubia. Makurtuta, berriz, erdiko ilaran dagoena Antonio Uribesalgo da. Azkenik, beheko ilaran, ezkerretik

hasita: Juan Antonio Iturbe, Luis Etxebarriarteun, Felix Mari Garai, Jose Mari Arkauz, Jose Ramon Arantzabal, Rikardo Besa, Julian Aginagalde eta Ramon Mari Elkoro.

Argazkia: Jose Mari Arkauz

NOLA ALDATU DIREN GAUZAK

Arlutz osteko kirol kantxa- ko aldaketak

Ez dira horrenbeste aldatu eskuman dituzuen argazki biok. Edozelan ere, 1997ko erretratuan Ilargi lantegi zaharra agertzen zaigu; 61 urtean zutik egon ondoren, 1997ko urrian bota zuten. Gaur egun, Ilargi plaza eta izen bereko etxeak daude hantxe. Arlutz osteko kantxak, berriz, aldaketa bat izan du: baloiak urrun joan ez zitezen, burdinazko hesia jarrita zuten inguruan.




≈ 1997

Jokalariak sarritan joan behar izaten zuten baloi bila Ilargi lantegia zegoen ingurura. Ilargi lantegia 1997. urtean bota zuten.



2002

Erretratuan ikusi daitekeen moduan, gaur egun, burdinazko hesia dago Arlutz osteko kantxan. Orain dela urte pare bat jarri zuten.



**LURRINDEGIA
OPARI-DENDA**

Mitarte, 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETAK

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETAK

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana, 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14



ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETAK

943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

**OSKAR
GARAJEA**

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4
ARETXABALETAK

Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko ekainaren 21a / 85. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABALETIA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebbarri@goiena.com

Ehunka ume eta gaztek amaitu dute ikasturtea

AINTZANE GARDOKI

Bukatu da! Oporraldirako garaia da ume eta gazteendako. Herriko ikastolako, eskolako eta unibertsitateko ikasleek dagoeneko agur esan diote egunero altxatu eta eskolara joan beharri. Ikastetxeetako arduradunek datozen egunetan egingo ei dute amaitu berri den ikasturtearen balorazioa.

114 ikaslerekin, Jose Arana Ikastola izango da atek ixten azkena, uztailaren 24ra arte haurtzaindegi zerbitzua eskainiko du-eta. Guztira, bost urteko 21 umek utziko dute ikastola, Almenen, lehen mailan ekiteko.

Luis Ezeizako, eta Almengo ikasleek, aldiz, oporrak hartu dituzte gaur. Ezeizan 134 ikasle ibili dira; horietatik, 10 irtengo dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egitera, eta datorren ikasturtean aurten baino bederatzik ikasle gehiago izango ditu.

Almenek, berriz, 946 ikasle izan ditu amaitu berri den ikasturtean. 105ek utziko dute ikastola, baina 262 ikasle berri jasoko ditu datorren ikasturtean.

Unibertsitatean, eta fakulta-



Herriko txikienak izango dira ikasturtea amaitzen azkenak.

teak teknologi berriei bultzada handiena eman dion ikasturtean, 887 ikasle izan dira.

Baina hori bai, denok, ikasle, nahiz txiki, nahiz nagusi, festa

giroan esan diote agur ikasturteari. Ikasleek, irakasleek eta gurasoek irteerak, bazkariak eta era askotako ekitaldiak eginez agurtu dute aurtengo ikasturtea.

KIROLA/IV. Kirol Jaia egin zuen Almen Kirol Elkarteak Kirol Jaiarekin 25. urteurrenari agur

Bero izugarriarekin egin zuten joan den zapatuan IV. Kirol Jaia Almenen. 10:00etatik aurrera ikasle eta guraso ugari hurreratu ziren Almenera. Goizeko bederatzietan, Olinpiada Txikia egin zuten; areto futbol, esku pilota eta saskibalo partiduak jokatu zituzten. Puzgarriak, zezen mekanikoa eta umeendako hainbat lantegi ere egon ziren. Helikoptero telegidatuen erakustaldia eta munduko eta Euskal Herriko txapeladunen trialsin erakustaldia ere izan zen Alme-

nen; txalo zaparrada ugari jaso zituzten kirolari horiek.

TROFEOAK KIROLARI ONENEI

Saskibaloian, eskubaloian eta futboleko ari diren hamaika taldeek trofeo bana jaso zuten ondoren, eta talde bakoitzeko jokalaria onenak ere garaikurra jaso zuen. Jokalariak euren aukeratu zuten taldekide onena. Horren ondoren, 130 lagun batu ziren herri bazkarian. Jai horrekin, 25. urteurrenako ekintzak amaitu ditu KEK.



Trialsin erakustaldiak jendearen interesa piztu zuen.



San Pedro Txikik txanda eman die San Pedroei

Intxaurtxueta eta San Pedro auzoetako bizilagunek San Pedro Txiki jaiak ospatu dituzte asteburuan. Oso pozik daudela esan digute antolatzailleek; euren esanetan, auzotarren parte hartzea handia izan da jaietan. Umeei eskainitako ekintzek izan dute arrakasta handiena. Mus, briska eta tute txapelketetan ere jende asko ibili da, eta zapatuan, DJen emanaldia, oso arrakastatsua, goizeko 8ak arte luzatu zen. San Pedro Txikik txanda pasako die orain San Pedroei. / A.G.

LABUR

Areto futboleko jokalariek piztuko dute San Juan Sua

Datorren denboralditik aurrera herriaren izena Euskal Ligara eramango dutelako, Axtroki Elkarteak San Juan bezperan sua pizteko ohorea areto futboleko jokalariei eskaini gura izan die.

Sua 22:30ean piztuko dute, Eduardo Gorosarri plazan. Ordurako, ludotekako umeek erretzeko gertu izango dituzte txorimaloa eta iaz batutako lore sorta. Lehenago, arratsaldean, txistularien kalejira eta umeendako bonba japoniarrak jaurtiko dituzte.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Astroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
RENFE (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larmialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

SAN PEDRO JAIAK

San Pedro jaiak gainean daude. Datorren asteburuan izango dira egun handienak, baina gaurtik aurrera ere izango da zer ikusi eta zer entzun herrian. Gaur, barikua, 19:30ean, Kontzertu Lirikoa izango da parrokiari; Juan Luis Anasagasti tenorea eta Leire Goiti pianista arituko dira. Ekainaren 27an, eguenean, berriz, eta 17:00etatik aurrera, herriko edade-tuendako jaialdia egingo dute erretiratuen etxean.



Ardo Dastatze ikastaroak, arrakasta handia

Mikel Garaizabal Elorrioko enologoak eman du Ardo Dastatzearen gaineko ikastaroa. Astroki Euskara Elkarteak antolatu duen ikastaroan 16 lagunek hartu dute parte, tartean, bi emakumezkoak.

Hiru arratsaldean, ordu biko saioak egin dituzte ardoaren ingurukoak gustuko dituzten ikasleek. Ardoa ondo dastatzen jakiteko kontuan hartu beharrekoak zeintzuk diren ikasi dute, besteak beste. Astroki Euskara Elkarte-tik esan digutenez, parte hartu dutenak oso gustura gelditu dira ikasitakoarekin, eta jarraipena emateko nahia ere azaldu dute. / A.G.

LABUR

San Pedro jaietarako astebete eskas falta da, eta hainbat ohar kaleratu ditu Udalak

Edorta Zubizarreta alkateak eskoriatzarrei egindako agurrean esan du herrian egiten ari diren lanen ondorioz jaiak ospatzeko ingurua aldatu egingo dela, baina edozelan ere, ondo pasatzeko aukerak ez direla falta izango ere gaineratu du kaleratutako idatzian.

Udalak, bestalde, ohar batzuk egin ditu: jaietan etxeetako bal-

koietan Ikurrina jartzea eskatu die herritarrei; bestalde, jaiak irauten duten bitartean, suzko erruberak kanposantutik botako dituztenez, suak irauten duten bitartean Olazarren autorik ez aparkatzeko eskaera ere egin du Udalak; azkenik, herri bazkarian parte hartu gura duenak ekainaren 28a aurretik erosi behar du txartela, 12 eurotan.

Gazte Kantoik hiru hilabeteko frogaldia amaituta, uztailean izango du jarraipena

Olatz Pagaldaik, Gaztekantoiko begiraleak, bederatzi asteburu pasa ditu herriko 13-16 urte bitarteko gaztetxoekin. Orokorrean, egindako lanaz pozik azaldu da Olatz, "baina eduki dugun lokala, adibidez, askotan txikiegia gelditu zaigu; 35 gazte elkartu dira asteburu askotan" esan digu Olatzek. "Mahai jokoak eta eskulanak ugari egin ditugu, baina gaz-

teentzako gustukoena, irteerak egitea eta filmak ikustea izan da". Begiraleak egindako balorazioa kontutan hartuta, Udalak balorazio orokorra egingo du Gaztekantoik datorren ikasturtean jarraipena izango duen ala ez erabakitzeko. Bitartean, aurreko urtetan moduan, uztailean, bi astez, Gaztekantoiarekin disfruitatuko dute gazteek.

Villar

Ileapaindegia

Olazar auzoa, 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

NAIRA

Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

SAION DE BELLEZA
OSASUNA ETA EDERGINTZA
DORLETA

Aranburuzabala, 22 behea
ESKORIATZA
Tfnoa.: 943 71 51 20

LAGUNAK
DASTALEKU

Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63

aroztegia
leniz

Aingeruguardako ibilbidea
Tel.: 943 71 49 36
ESKORIATZA (Gipuzkoa)

- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak

ESTETIKA ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA



EDURNE

Aranburuzabala, 42
Tel.: 943 71 51 54
ESKORIATZA

Toti Martínez de Lezea eta Maite Aristegi Gatzagan izan ziren 'sorginekin'

AMAGOIA LASAGABASTER

Gatzagako Sorginak emakume taldeak gonbidatuta, joan den egubakoitzean, hilaren 14an, Toti Martínez de Lezea idazlea eta Maite Aristegi EHNE sindikatuko kidea izan ziren Gatzagan. Emakumearen gaineko hitzaldia egin zuten eta gero, herrian afaldu zuten.

Ekainaren 14an, Gatzagako Sorginak taldeak egun berezia gertatu zuen. Emakumeen gainean berba egiteko mahai-ingurua antolatu zuen. Helburu horrekin, Euskal Herrian dagoeneko ospe-tsua diren emakume bi gonbidatu zituzten: Toti Martínez de Lezea idazlea eta Maite Aristegi EHNE sindikatuko kidea, hain justu. Sorginak taldeak Amaia Vázquez sexologo eta psikologoari ere egin zion gonbidapena mahai-ingurura etortzeko, baina hark, azken unean, kale egin zuen. Edozelan ere, gatzagarrek ez zioten mahai-inguruari hutsik egin, eta denera, hogeit bat herritar inguru hurreratu ziren kultura etxera; gehienak, esan beharra dago, emakumezkoak ziren.



AMAGOIA LASAGABASTER

Toti Martínez de Lezea eta Maite Aristegik luze eta zabal berba egin zuten joan den egubakoitzean emakumearen gaineko mahai-inguruan.

EMAKUMEA HISTORIAN ETA BASERRIAN

Mahai-inguruan lehenengo berbak Toti Martínez de Lezeak egin zituen. Hark Gatzagan egoteak poz handia ematen ziola argitu zuen lehenengo. Eta aurreneko berba horiek euskaraz egin bazituen ere, ondorengoak gaztelaniaz egin zituen: "Badakizue nik asko eta, gainera, azkar berba egiten dudala; beraz, gaurko gaia lantzeko gaztelaniaz mintzatuko naiz". Edonola ere, jarraian, ondo baino hobeto berba egin zuen emakumearen historiaren gainean. Literaturan eta historia liburuetan hartutako jakintzan oinarrituta, kronologikoki emakumearen garapena zelakoa izan den azaldu zien gatzagarrei: "Historiaurrean hasten da gure historia; garai hartako dokumenturik ez daukagu; hortaz, ezin dezakegu ezer egiaztatu... Edozelan ere, idatzi diren liburuetan emakumearen presentzia oso urria da, hutsaren hurrena ez esatearren.

Totiren esanetan, historia liburuetan emakumezkoaren presentzia oso urria da

Hala ere, jakin badakigu emakumeak beti hortxe izan direla; bestela, zelan erreproduzitzen ziren? Esporetatik, agian?". Totiren berbaldia horrelaxe igaro zen aro garaikidera arte, giro umoretsu eta alaian. Totiren esanetan, emakumeak beti izan ditu oztupoak kulturara hurreratzeko, eta hori nabaria izan da literaturan: "Jainkoa emakumearen gainean zego-

Maite Aristegik emakume baserriarren ikuspuntutik egin zuen berba

ela esaten zuten, eta Jainkoaren gainean gizona; hortaz, emakumea beti izan da azpian. Hala ere, emakumezkoak oso borrokalaria izan gara, eta beti egin dugu aurrera; ez dugu askorik idatzi, baina kulturari beti eutsi izan dio emakumeak; batez ere, ahozko tradizioaren bitartez".

Maite Aristegik ere emakumearen gainean egin zuen berba,

Totiri eta Maiteri isuski bana eta herriko produktuez eginiko otarra oparitu zieten

baina beste ikuspuntu batetik, emakume baserriarren ikuspuntutik, hain zuzen ere. Maitek, labor-labor, gaur egungo emakume baserriarra emakume kontsumitzailea eta ekoizlea edo saltzailea ere badela argitu zuen: "Ni baserri girotik nator, eta jakina, handik ateratako esperientzia kontatzera nator; baina esperientzia hori eguneratu gura izan dut; izan ere, emakumeak gaur

egun, kontsumitzaile gisa, sekulako garrantzia du".

Mahai-inguruaren amaieran, herritarrek gaiaren gainean euren iritzia plazaratzeko aukera izan zuten.

OPARI MODUAN, ISUSKI BANA

Gatzagako Sorginak Eguna amaitzeko, afari-merienda eskaini zieten Totiri eta Maiteri. Mahai-inguruko protagonistek, jakina, ez zioten gonbitari ukorik egin eta, horrela, denek batera egin zuten afaritxoa.

Gatzagako Sorginak taldeak estimu handia die mahai-inguruko hizlari biei. Telefono dei bakarra behar izan zuten Totiren eta Maiteren baieztoko erantzuna jasotzeko. Horregatik, Sorginak taldeak opari bana ematea erabaki zuen; eta zer hoberik sorginen ikurra den isuskia baino?

ESKUZ

LARRUGINTZA

Askotariko larrugintza lanak
Mandatu eta lan bereziak

Pilar kalea 9 LEINTZ GATZAGA 943 71 41 54

Ze barri?

Izan zaitez zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ

ESKORIATZA


TXAPA, MARGOA
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!

Amet's taberna



Taberna eta kafetegia
Iparragirre 4. 943 79 01 29



AZKENA taberna
Solohaundi 8 Aretxabaleta. 943 79 74 57

GUREA

taberna
jaketxea

Durana kalea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64

Taberna Berri



Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

URBALTZ
TABERNA



Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA

JOSU

taberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08



HIRUSTA JATETXEA

Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. : 943 79 06 57

Baster-Alde jatetxea



Sasoiko
jakiak giro
onenean

Galartza auzoa, Aretxabaleta
943 79 24 58

Mitartegarakai



Areantza auzoa, Aretxabaleta
943 79 17 51

**Dorleta
taberna**

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel.943 79 94 15

Txalaparta taberna



Aranhuruzabala 25 ESKORIATZA

**ALDATZ
Taberna**

Musika ona entzun dezazun

Tel.: 943 71 41 71
ESKORIATZA

Mirrentxu



Hidalga 10
Eskoriatza. 943 71 41 67

**COMPOSTELA
Taberna**

Olagarro espezialitatea

San Pedro 12
ESKORIATZA
943 71 48 70

ESKORIATZA

Tfno 714345



MENDIOLA

Bazkariak
eta
afariak

Mendiola auzoa
ESKORIATZA
943 71 43 45
Astelehenetan
itxita

Luzapenak

Ile naturalak %100



ESTETIKA

- Betileen permanentea eta tindatzea
- Masajea
- Aurpegiko azala garbitzea
- Manikura
- Depolazioa argizari hotzarekin nahiz beroarekin
- Salariuma
- Ezkontzetarako makillajea



Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79
ARETXABALETA

ILEAPAINDEGIA

- Zure orrazkera estiloa aurkituko dugu: ile motza, permanentea...
- Luzapenak, ile naturalak %100
- Ezkontzetarako orrazkera bereziak
- Kolore aukera zabala
- Ilearn osasunerako hainbat produktu